

SAN KRISTOBAL AUZO BATZARRA

Igorren, 2011ko urri lehenengoaren 15ean

Bertaratutakoen artean hemeretzi auzotar dagoz, eta aparte lau zinegotzi Bildutik, EAJ-PNVtik bakarra. Gogoan hartu hiru alderdien artean egindako ekarpenak eta aportazioak euki dabezala aurrekontu parte hartzaileen batzarrak.

Igorreko herria, danon aukera logoaren aurkezpena egin da, eta Igo aurrekontuetara herritarren abotsa entzun eta danon neurria egokitzen diran aurrekontuak aurrera aterateko.

Sarrerak nondik datozen azaldu da, grafikoki lehenengo bost minutuetan

Gastuen artean gastu fijoak, obretan egiten diran inbertsinoak hartzen dabela ehuneko ehunaren zatirik handiena.

Gabezien atalean plazaren egoera txarra, argiztapenerako farola zaharrak dirala, quitamiedosaren falta eta kotxeen gehiegizko belozidatea. Euria egiten dauanean pasetan diran kalteak eta Igotransen zerbitzua gehien erabiltzen dan auzoa San Kristobal izanik kudeaketa aldaketa ikusi dira udal taldearen aldetik. Argazkiak be erakutsi dira. Solagurenen kotxeen prioridatea aldatzea be aitatu dau alkateak.

Udal gobernuaren konpromisoak plazaren proiektuaren bideragarritasun plana dira, farola barriak jartzea, quitamiedosak gehitzea, badenen antzeko sistemak ezarri, auzoko bidexken egoera hobetu eta Igotransen gaineko kudeaketa.

Auzotar batek argi sistema solarra jartzea proposatu dau. Farolen intensidatea be kontuan hartu beharreko gaia dala diñoe, igaz auzotar asko kexatu ziralako. Depuradoraren inguruan argi lar dagoala eta beste lekuetan argiztatze okerra daukiela.

San Kristobal ermitan kanpaia joteko orduan igoteko eskailera konpondutea beharrezkotzat ikusi dau auzotar batek segurtasun aldetik ez dalako behar dan bestekoa.

Urkuzutik San Kristobalera doan bidearen egoera txarra salatu dau auzotar batek orain gitxiko gertaera baten lekukoa bera izan dalako.

GEA iberica enpresaren kokapena kontuan hartuta, kartelak ipinteko konsejua emon dabe herritarrek San Kristobal auzoan amaitzen dabelako kamioi askok erratuta.

Ongizateko zinegotziak Ongizate eta Bardintasunari buruz gogoeta bat ekarri dau herritar talde batek holan eskatuta auzora, indarkeriaren kontrako protokoloa eta planen aplikatzea eta jarraipena.

EAJ-PNVko ordezkariak berba hartu dauanean, proiektu eta inbertsioen atalean dirua dagoanez arin egin beharreko lanak ikusten ditu plazako lanak eta kanpazarren baserriko kurba zabaltzeko. Garamendiko saneamenduari jagokonez, udabarrian egitea eskatuko dau.

San Juanen kotxeen txarto aparketea salatu dau herritar batek. Kotxeak azera eta bidean artean dagozala eta San Kristobalen bizi diranak askotan geratu beharra izaten dabela. Herritarrek lanera berandu heldu izana be egotzi dautsie arazo hori. Goizeko 7.30etan aguazila egoera zein dan ikusteko eta nota hartzeko aukera emon dau alkateak.

Kornerreko kurban bisibilidade eskasa dalako be salatu dau beste herritar batek. Txarribasoko bidean bedarra ebagi ez dala adierazo dau herritar batek, eta Loiate pasau eta gero bidean arbustoak dagozala be aitatu dau.

Labaderoa kontuan hartzeko be aitatu dau . Umeen gunea eta egoteko leku falta dagoala be aitatu dau. Depuradorearen beheko aldean leku polita dagoala esan dau beste herritar batek, sasiak ebagiteko be bai. Igaz be esan ebala gehitu dau.

Herrirako bidean, kaminoa be apurtzen doala apurka-apurka dino auzotar batek. San Juanen, muebleriaren aurrean terreno partikular jartzen dauan kartelak nondik nora eta ze arauen arabera ipini diran jakin gura izan dabe, ea dena libre dagoen zalantza zabaldu da txokoan zehar eta alkarrizketa eta eretxi trukea egon da gai honetan.

Aguazilaren eta ertzaintzaren beharrak zeintzuk diran be urten dau mahai ganera.

Bariantean San Kristobal, San Juan indiketan dabezan kartelak eskatu dabez baina ezinezkoa dala dino, Kornerren parean ipintea bai.

Auzolana egitea proposatzen da erreka garbiketa bat. Udalak deialdia egin eta materiala emon eta auzokoek gogoia badabela esan dau.

Iluntzetan produkto kimikoen usaina heltzen dala azaldu dau herritar batek, osasunarentzat kaltegarria dala esanez. Momentoan bertan Aguazilari deitzea eta egoera aztertzea komenigarri jo dau alkateak.

Garbiguneak pintura pote beteak hartzeko aukera zenbatekoa dan dino herritarrak eta orain arte alkate izan danak aurreko legegintzaldian egin ziran gestinoen barri emon dau.

Barianteeko zarata maila igo danaren ardura azaldu dau herritar batek.

Panel bat ibarrondoko kruzean ondo legokeela ikusten da. Egingo dan panelen azterketan kontuan hartuko da.